

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara eta Kultura Saila****Euskara eta Kulturako foru diputatuaren 632/2019 FORU AGINDUA, otsailaren 22koa, Bizkaia Kirolak 2019 sarietako epaimahaia izendatzen duena.**

Urtarrilaren 17ko Euskara eta Kulturako foru diputatuaren 327/2019 Foru Agindua-ren bidez Bizkaia Kirolak 2019 sarietarako deialdia egin zen (18. zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, urtarrilaren 25ekoa).

Foru dekretu arautzaile horren Laugarren Oinarriko 2. puntuan xedatutakoaren arabera Sarietako epaimahaia Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Saileko foru diputatuaren foru-agindu bidez izendatuko da, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu.

Oinarri horretan xedatutakoa aintzat hartuta eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/87 Foru Arauko 39.i) eta 67.1 artikuluek eta Kultura Sailaren egitura organikoari buruzko araudia onartu zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretuak eta gainontzeko baterako xedapenek Euskara eta Kulturako Foru Saileko titularrari ematen dizkioten eskumenak kontuan harturik, eta izan daitezkeen abstentzio eta/edo errefusatzeeen ondorioetarako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeko 23 eta 24. artikuluetan xedatutakoaren arabera, honako hau.

**XEDATU DUT:**

*Lehenengoa:* Bizkaia Kirolak 2019 sarietako epaimahaiko kideak izendatzea. Honako hauek osatuko dute epaimahai hori:

- Epaimahaiburua:
  - Lorea Bilbao Ibarra andrea, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kulturako foru diputatua.
- Epaimahaikideak:
  - Miren Arantza Mardaras Izarza andrea, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuko burua.
  - Mikel García Narbaiza jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuko teknikaria.
  - Vanessa Campo Monterrubio andrea, Bizkaia Bizkaialde Fundazioak izendatua.
  - Francisca Blanco Espinazo andrea, Bizkaia Bizkaialde Fundazioak izendatua.
  - Kepa Rodríguez Maté jauna, Bizkaiko Kirol Federazioen Elkarteak izendatua.
  - Francisco José Prieto García jauna, Bizkaiko Kirol Prentsaren Elkarteak izendatua.
  - José Miguel Alonso Gaya jauna, Bizkaiko Kirol Prentsaren Elkarteak izendatua.
  - Idoia Eskurza García andrea, Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak izendatua.
- Idazkaria:
  - Igor Estankona Bilbao jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuko foru funtzionarioa, ahotsa izango duena baina botorik ez.



*Bigarrena:* Foru agindu hau interesdunei jakinaraztea, baita Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuari ere, dagozkion ondorioak izan ditzan.

## AZKEN XEDAPEN

### **Azken Xedapen Bakarra.—Indarrean jartzea**

Honako foru agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2019ko otsailaren 22an.

Euskara eta Kulturako foru diputatua,  
LOREA BILBAO IBARRA